

HODEIA

Tip, tip, tip, tip
Euria teilatuan zirimiri ari
Tip, tip, tip!

(esku bateko erhiez, beste esku bizkarrean emeki-emeki euria egin)

Ziu! Ziu! Ziu! Ziu!
Tximistak ziu zerua, ziu! urratzen ari
Ziu! Ziu! Ziu!

(erhi erakusleaz, airean tximista marraz)

Tip, tip··· Ziu! Ziu!
Beharriak hetsi (e)ta, kasu ekaitzari!
Tip, tip··· Ziu!

(aitzineko bi jestuak berriz egin eta burua beso artean gorde)

HODEIA

MINTZAIRAZ JABETZEA

Objektu bat, pertsona bat, ekintza bat zehazki izendatzea

• *Hodeia, haizea, tximista, ortzantza* (trumoia), eguraldiari dagozkion hitzen erabiltzea.

MUNDUAREN EZAGUTZA

Objektuen ezagutzea, izendatzea, sailkatzea, deskribatzea, erkatzea, dituzten ezaugarrien arabera

(Fitxak)

Ttipiak / PS

–Aterki berdinak lot itzazu: bata irekia eta bestea hetsia (1. fitxa).

Artekoak / MS

–Margo itzazu aterkiak kodeari jarraikiz (2. fitxa).

HAUTEMATEA, NABARITZEA, IRUDIKATZEA, SORTZEA

Jestua baldintza materialei egokitzea (tresnak, euskarriak, materiala)

(Fitxak)

Artekoak / MS

–Marrazkia burura ezazu titen gainetik pasatuz. Gezien zentzuari kasu emaiozu. Ondotik, marrazkia margo ezazu (3. fitxa).
–Euria marraz ezazu. Ondotik marrazkia margo ezazu (4. fitxa).

Tindua eta margotzea, adierazteko eta irudikatzeko erabiltzea

Ttipiak / PS

–Hodeiek zerbait irudikatzen dute; margo itzazu (5. fitxa).

Artekoak / MS

–Marrazkia tinda ezazu (6. fitxa).

Hodeiei eta ekaitzari dagozkion irudiak bil eta erakusketa bat antola.

Kantuen gogoan hartzea eta haien ematen jakitea

– *Elurra* eta *Euria* kantuak entzun (*Kantiruri*, Pantxika Solorzano)

GORPUTZAREKIN ARITZEA

Jestuz, sentimenduen eta emozioen adieraztea

- Haur batek bestearen bizkarra erhiez hunkituz hodeiak hartzen dituen itxura batzuk sentiarazten dizkio.



1. fitxa



2. fitxa





3. fitxa

5. fitxa